




Info 7 irradi berria aurkeztuko dute Tolosan

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Jada entzungai da Internet nahiz uhinen bidez; Kultur Etxean emango dute «proiektu herritarraren berri» ▶ 3



Urtarrilaren 30ean ekin zion programazioari Info 7 irriatiak. HITZA



J. ASTIBIA

Aurrera, lidergoa lortzeko borrokan

LEITZA ▶ Liderren arteko lehian, bana berdindu du Aurrerak Gazte Berriak taldearen aurka; partida gogorra ikusi zen Arkixkilen ▶ 7



**Pertsonak hezitzea
eta osatzea
gure erronka**

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

— 2-16 urte bitarteko hezkuntza —
Villabona eta Zizurkilgo ikastola

- Euskalduna eta eleanitza
- Kalitatezko Hezkuntza
- Esperientziaduna

943 69 23 21 (Berria, 49 • Villabona)
943 69 20 58 (Txermin auzo • Villabona)
943 69 12 75 (Elbarrena auzo • Zizurkil)

billabona@ikastola.net

ADUNA ▶

Mozioa, Euskal Herriaren euskalduntzeaz

Plataformaren mozioa
onartu du Udalak ▶ 4



N. URBIZU

TOLOSALDEA ▶

Zazpi-lturri, Berria Txapelketan aurrera

66 puntu batu dituzte
amezketarrek ▶ 5



HEZKUNTZA ▶

Laskoraingo Haur Hezkuntzako gurasoei, hitzaldia

Heziketan guraso eta ikastolak elkarrekin aritzeak duen garrantzia aintzat hartuz, Beatrix Ezeiza Ikastolako orientatzaileak hitzaldia eskainiko du etzi, 19:00etatik aurrera, Usabalgo aretoan, Haur Hezkuntzako gurasoentzat. Honako gaiak jorratuko dituzte bileran: afektibitateak duen garrantzia, hizkuntzaren garapena eta heziketa mota ezberdinak.

GIZARTEA ▶

Amaroz auzoko Merkatu Txikiko bilketa kanpaina

Amarozko Auzo Elkartek antolatzen duen Merkatu Txikia martxoaren 6tik 14ra izango da. Bertan salgai jarriko dituzten arropak, jostailuak, liburuak eta bestelako gauzak egunotan ari dira jasotzen eta sailkatzen, eta etzi amaituko dute kanpaina. Materiala ematen lagundu nahi duenak Amarozko Auzo Elkarteko lokaletara jo dezake, 16:00etatik 19:00etara.

INAUTERIAK ▶

Azken aukera karroza eta konpartsetarako

Hil honen 10ean, ostiralarekin, Inauterietako karrozen eta konpartsen lehiaketan parte hartu ahal izateko ize-na emateko epea amaituko da. Beraz, parte hartu nahi duenak aste honetan du azken aukera. Aranburu Jauregian egin ahal izango dute interesatuek, aste guztian zehar, goizez nahiz arratsaldez, 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.

GIZARTEA ▶

Tolargik argindar mozketak egingo ditu egunotan

Tolargi instalakuntzetan hobe-kuntza eta mantenimendu lanak egiten ari da; hori dela eta, egunotan argindar mozketak egingo dituzte: etzi, Nafarroa etorbideko 7an 08:10etik 09:00etara; ostiralean, berriz, Nafarroa etorbideko 11n, behean, 08:00etik 08:45era; eta hilaren 13an, astelehena, Korreo kaleko 1, 3, 5, 7, 11, 13, 15 eta 17an, 08:15etik 12:30era.

KIROLA ▶

Ikaspilota Topaketa gaur goizean

Gaur egingo dute, goiz guztian, Ikaspilota topaketa. Bote luzea jorratuko dute, LH 6ko ikasleentzat. Anoetako, Alegiako, Uzturpeko, Flemingeko, Hirukideko eta Berriko ikastetxeek hartuko dute parte. Lehen zatia Beotibarren, Hirukiden eta kiroldegian egingo dute, 09:30etik 11:00etara; eta bigarrena, 11:00etatik 12:30era, berriz, Usabalen.

ARETO FUTBOLA ▶

Porrot berri batekin bolada txarrak darrai horitxoaren artean

9 eta 1eko emaitzarekin galdu zuen Laskorain taldeak etxetik at, Zierbenaren aurka jokaturako norgehiagokan

ERREDAKZIOA

Horitxoak ez dira sasoi ona igarotzen ari; joan den igandean, hain zuzen, Muskizko itsasmuturrean, sailkapeneko zuloan dagoen Zierbenaren aurka, bolada txar honen «beste adibide argia» bizi behar izan zuten: ikastolakoek «porrota esanguratsua» jaso zuten, 9 eta 1 galduz; azken denboraldietan jasan duten porrotik lodiena, ezbaierik gabe.

Neurketa hasieratik okertu zen horitxoentzat. Lehen minutua betetzerako, «bixkiak ziruditen bi jokaldietan», Zierbenakoek bi gol sartu zituzten, garaipen itzaropenak susper-tuz eta, halaber, kili-kolo dabilen horitxoaren konfiantza eta moralala birrinduta utziz. Estreina 60 segundo horien oste-

an, laskoraindarrak esnatu egin ziren, jokoa erabat berdinduz. Gol aukerak sortzeko gai ere izan ziren, baina «egia borobila da» markagailuan atzetik egotearen zama astunegia suertatu zitzaizela.

Aldageletara 3 eta 0arekin joan eta gero, bigarren erdian hastapenean 3 eta 1ekoa egin zuen Saldiasak, une batez talde bizkaitarrean zalantzak sortuz. Baina minutu batzuk pasatu ondoren, gola «ameskeria hutsean» gelditu zen. Kontraerasora, horitxoaren hutsuneei probetxua ateraz, Zierbenakoek laugarrena eta bosgarrena egin baitzituzten, norgehiagoka behin betiko erabakiz.

Etxekoan gainontzeko golak, partidaren amaieran iritsi ziren, bi hamar metrotatik eta bi

gehiago kontraerasora. Emaitzak ez zuen «inolakoa aitzakiarik» onartzen, aldea gehiegizkoa izan bazen ere.

«Taldeak zailtasunei konponbideak ipiniz erantzun ordez, zailtasun berri gehiago sortuz erantzuteko joera hartu du, eta hau ezin dugu inolaz ere onartu, nola edo hala lehenbailehen aldatu beharko dugu», zioen, haserre, Iñaki Egizabal entrenatzaileak partida amaieran.

Harekin eta Jabi delegatua-rekin batera, Arregi, Telletxea, Kalixto, Saldias, Barriola, Alonso, Yustos, Amatriain, Gil, Zubillaga eta Domentxe jokalariek egin zuten Muskizera bisita, baita burumakur bueltatu ere. Datorren jardunaldian Usabalen eman beharko diote buelta taldearen egoerari.

MERKATARITZA ▶



Alde Zaharra-Dendak eginiko zozketak baditu saridunak

N. Lataburu ▶ Alde Zaharra-Dendak Gabonetan eginiko zozketak baditu dagoeneko irabazleak. Lehen saria, hain zuzen, Maria Rosario Arandia tolosarrak irabazi du. Hari egokitu zaio, bada, Mediterraneoan barna 2 pertsonentzako itsas bidaia —argazkian, Kimetz dendako Juanjo Ruiz, irabazleari saria ematen—. Bigarren saria, berriz, Arantxa Olanorentzat izan da, Honekin ilea-paindegian jasotako txartelari esker. Harentzat izango da *Play Station* kotsola bat. HITZA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

KOMUNIKABIDEAK ▶

Info7: eskualdean ere entzun ahal izango den irrati berria

Azti-begia elkarteak hitzaldia antolatu du biharko Tolosako Kultur Etxean, «proiektu herritarra aurkezteko asmoz»



Haxe da irrati berriak erabiliko duen ikono edo zeinua. HITZA

ERREDAKZIOA

Aurreko astean abiatu zen Info7 irratiuhin bidez Euskal Herri osora. Urtarrilaren 27an, 19:00etan, izan zen Info7 irratiaren inaugurazioa Urruñako Hedagune zentroan, irrati estudioak kokatuta dauden tokian, alegia. Urtarrilaren 30ean ekin zion berriz, egune-

roko programazioari. Eta eskualdean ere bada entzugai. Bihar, gainera, 20:00etan hitzaldia antolatu dute Azti-begia elkarteak Tolosako Kultur Etxean, «proiektu herritarra» aurkezteko.

Irratiaren izaera nazionala da. Euskal Herria du hizpide eta irizpide. Helburu nagusia «Euskal Herrian albiste edota

interesgarri izan daitezkeen gertaeren berri ematea» da. «Euskal Herri osoari edota herri, eskualde edo herrialde jakin bati dagozkien gaiak» jorratuko ditu; eta, aldi berean, «ikusmolde berari eutsiko dio munduko berriei so egiteko orduan. Nazio ikuspuntutik tratatuko ditu aipagaiak, garrantzian eta interesaren arabera;

eta, beraz, tokian tokiko irratien lanarekin osagarria izango da erabat».

Azti-begia elkarteak jarri du proiektu berri hau martxan. Duela urtebete sortu zen Azti-begia elkarte, eta orduan ametsa zen proiektua jada gauzatzen ari da. «Info7 irratiaren ibilbidea progresiboa izango da. Arlo desberdinetan pausoak ematen joango gara helburu duten proiektu komunikatibora iristeko. Programazioari dagokionean albiste-gaiak, goizeko magazina eta musika dira nagusi. Euskarak du eta izango du presentzia nagusia, baina gaztelaniak eta frantsesak ere izango dute beren tokia», azaldu dute sustatzaileek. Info7 irratiak Euskal Herria «euskararen herria» dela du hirizpidetzat, eta horrek isla izango du irratiaren egiteko orduan, «euskararen ofizialtasuna» aldarrikatuko baitute. Baina Euskal Herriaren komunikazio eremua osatzeko eta euskal herritar guztiengana iritsi ahal izateko, egun gaztelania eta frantsesa erabiltzea ere «beharrezkotzat» jotzen dute.

Teknologia berrien eskutik entzun daiteke Info7 irrati, Internet bidez, alegia, www.info7.com webgunean. «Alor honetan ibilbidea ere progresiboa izango da. Internetetik sateliterara egingo dugu salto, satelite bidez zabalduz gure seinalea, baina beti ere helburua FMn, uhinen bidez, zabaltzea izango dela».

«Elkarlana» bultzatu nahi dute, beste hedabideekin lanean arituz. «Herritarren babesa behar duen irrati da. Irratiak biziraun dezan beharrezkoa izanen du herritarren babesa». Hala, bide bat bazkidea izanen da, Azti-begia proposatu duen moduan. Horretarako mahaia jarri dituzte; Tolosaldean ere azken larunbatetan egin dute halakorik.

SASKIBALOA ▶

Saskibaloi bikainaz gozatzeko aukera izan da

Tolosako talde nahiz maila guztiei arerioak txiki geratu zaizkie kanpoan jokatu ere

ERREDAKZIOA

Take saskibaloi taldeak emaitza bikainak lortu ditu asteburuan, partida guztiak irabazi egin baititu:

Seniorren mailan, larunbatean jokatu zuten La Salleko taldeak eta Tolosa Aralarrek, 57-79ko emaitzaz irabazi zuten Tolosakoek.

Kadeteek, bestalde, Federazio Txapelketa jokatu zuten, eta Easo B taldearen kontra garaipen argia lortu zuen Tolosa Argysanek: 27-75.

Infantil mailakoek ere norgehiagoka erraza izan zuten: Argysan A taldeak 65 tanto egin zituen, eta Ordiziak 13. Tolosa Argysan B-k, bestalde, 28-20 irabazi zieten Goierri K.E. taldekoei; partida berdinuagoa izan arren, azkenik Tolosara etorri zen garaipena.

Datorren astebukaerako partidak honako hauek izango dira: seniorrak larunbatean ariko dira, 18:00etan, Usabalen, Asti Leku Tsunamiren aurka. Kadeteak igandean ariko dira, 12:00etan, G.B.C. Zarautz taldearen aurka. Infantilek, 10:30etan, Tolosa Goierri K.E. izango dute aurkari. Eta etxetik kanpo, Legazpin, igandean bertan, 11:00etan, Andraitx K.E. eta Tolosa Argysan B lehiatuko dira.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheha
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Asteasu. 250 m2ko etxe bifamiliarra salgai. Eraikuntza berrikoa!
Amezketza. Etxe abikia salgai.
Belautza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.
Bidanía. Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai. Oso egoera onean.
Hernalde. Etxe bifamiliari ederra salmantan. Eraikuntza nahiko berria.
Ibarra. Garaje ibxi eta irekiak salgai.
Ibarra. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.
Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko

etxebizitzak. Hiru eta lau logelekin, terrazak, sukalde hornitua.
Garajeekin.
Tolosa. Larramendi. 96 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Trastelekua eta garajea. Dena. 309.500 euro.
Tolosa. Alde Zaharrea hainbat etxebizitza salgai 168.285 eurotik aurrera.
Tolosa. Errementari. Hormigoizko egitura. 2 logela. Oso egoera onean. Trastelekuarekin.
Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.
Tolosa. Zezen-plazan. 87 m2ko etxebizitza. Berritzeko. Igoailuarekin.
Tolosa. Geltokialdean. Eraikuntza

berria. Bi logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, bi terraza eta bi lorategi. Behean: garajea, komuna eta bokoa.
Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai.
Ikusteko modukoa!
Tolosa. Laskurain. 80 m2 dituen etxebizitza. Bizitzera jartzeko modukoa. 297.500 euro.
Tolosa. Erdialdean (oso toki onean). Eraikuntza berriko etxebizitza. Hiru logela eta bainugela. 371.425 euro.
Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m2-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.
Tolosa. San Frantzisko-Pedro Tolosa inguruan, toki paregabean!

Lau logelako etxebizitza ederra, garajearekin salgai.
Tolosa. Trinkete. Garaje alokairuan.
Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.
Tolosa. Pablo Gorosabel. 40 m2ko bulegoa alokairuan.
Tolosa. Usabal. 2.000 m2-ko pabilioi industriala alokairuan.
Tolosa. Guadalupe. Pabilioia salgai. 228 m2 beheko aldean eta 148 m2 goialdean. **Prezio interesgarria!**
Villabona. 24.400 m2 dituen lursaila eta 140 m2-ko borda.
Zizurkil. Eraikuntza berriko 0640 m2-ko pabilioia. 9 metrotako altuera. Kamioientzako 2 sarrera, bulegoak, komunak, apartakalekuarekin...

SANTA AGEDA BEZPERA ▶



Adunan eta Ikaztegietan ere aritu ziren abesten eta Santa Eskean

Erredakzioa ▶ Santa Ageda bezperan hainbat talde aritu ziren bi eskualdeetako herrietan koplak kantatzen. Adunan —ezkerreko argazkian—, esaterako, jende ugari bildu zen. 40 lagun ibili ziren herrian zehar abeslari. Ikaztegietan, berriz, emakume talde bat —eskuineko argazkian— aritu zen Santa Eskean etxerik etxe eta baserriz-

baserri. «Bertan ateratako dirua zatitu eta momentuko beharrei aurre egiteko eta euskal preso politikoentzako bideratzen dugu», azaldu dute. Era berean, taldekideek jasotako diruagatik «eskerrak» eman nahi dizkiete «herritar guztiei erakutsitako eskuzabaltasunagatik». HITZA

ADUNA ▶ EUSKARA

«Hizkuntza politika berria abian jartzea derrigorrezkoa da»

Herri Plataformak Euskal Herria euskalduntzeari buruz aurkeztutako mozioa onartu du aho batez Udalak

ERREDAKZIOA

Adunako udalbatzak Euskal Herria euskalduntzeko hizkuntza politika berria dela eta ezker abertzaleko herri plataformak aurkeztutako mozioa onartu du aho batez. «Euskal Herrian indarrean dauden hizkuntza politikarako ereduak agortuta daude. Ez dute Euskal Herria euskalduntzeko balio. Beraz, eredu aldaketa ezinbestekoa denez, Euskal Herria euskalduntzeko hizkuntza politika berria abian jartzea derrigorrezkoa dela onartzen du Udal honek», dio testuak.

«Euskal Herria euskalduntzeko prozesuaren inflexio

puntuan aurkitzen garaela aldarrikatzen du. Era berean, euskal hiztun komunitatea berrosatzeko prozesuaren urrats zehatz eta atzeraezinak ematea ezinbestekoa» dela dio Udalak onartutako testuak.

«Bizi dugun» inflexio puntu horretatik abiatuz, Euskal Herria euskalduntzeko prozesuak ondorengo zazpi oinarrietan eragin beharko duela aldarrikatzen du Udalak: «Euskara Euskal Herri guztian hizkuntza ofiziala izatea; belau-naldi berrien euskalduntasuna bermatzea, bizigune euskaldunak bermatuz; udalerrri euskaldunen garapen iraunkorra lantzea; administra-

zio eta zerbitzu publiko guztien euskalduntzea; lan esparrua eta, bereziki, enpresa pribatua euskalduntzeko baliabideak jartzea; hedabideak eta kultur produkzioa euskara lehenetsia; bide hau guztia egiteko beharrezkoak diren baliabideak (ekonomikoak eta azpiegitura mailakoak) bermatzea».

«Konpromisoa»

Onartutako testuan agertzen denez, Udalak «eztabaida orokor hau emateko konpromisoaz gain, euskalduntze prozesua bultzatzeko konpromisoa hartzen du».

Mozioaren bitartez herritarrik eta eragileak parte hartzea deitzen ditu Udalak. «Aurkitzen garen inflexio puntu hau baliatuz, bai eztabaidan, zein harturiko ebazpenen garapenean, partaide aktibo izateko eskaera eta eskaintza egiten die Udal honek, bai herritarrei zein eragileei ere», adostu du, azenik.

ALKIZA ▶ GIZARTEA

Irri-terapia ikastaroa antolatu du Udalak

Ostegunetan egingo da ikastaroa, eta hilaren 20a arte dago epea emateko

ERREDAKZIOA

Alkizako Udaleko Kultur Batzordeak irri-terapia ikastaroa antolatu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren eta Ceibanc-Cdearen laguntzarekin. Talde bat osatuko da, ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroaren iraupen osoa 12 ordutakoa izango da. Ikastaroa Alkizako Kultur Etxean

gauzatuko da, eta 25 urte baino gehiagokoei zuzendua izango da. Ikastaro honek plaza mugatuak izango ditu (20 ikasle, hain zuzen ere), eta izena emandako orden zorrotzean beteko dira. Izen-ematea norberak Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko telefonora (943 69 39 30) deituta gauzatuko da, dohainik izango da eta hilaren 20an amaituko da.

GIZARTEA ▶

Ingelesa praktikatu nahi duenarentzat deialdia

ERREDAKZIOA

Aiztondo bailaran ingelesez gutxieneko maila duten hainbat lagunek ingelesez hitz egiteko eta talde txiki bat sortzeko beharra azaldu dute.

Helburua ingelesez praktikatzeko izango litzateke, kafetxo bat hartuz, afaritxoren bat eginez... «Batez ere, garai batean

ikasitakoa ez galtzeko, lagun berriak egiteko eta parre batzuk botatzeko» asmoa dute lagun horiek.

Interesa duenak Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatearen bulegoetara dei dezake (943 69 39 30 telefono zenbakira) edo azaldu etzi, hilaren 9an, 18:30ean, Asteasuoko Iturri Ondo tabernara.

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Ahoetan, neska eskalduna behar da tabernan 4 ordu lan egiteko. Esperientzia duena. Deitu 635 745 291.

**TOLOSALDEKO
HITZA.INFO**

‘Zeuk idatzi’. Webgunean atal ugari daude parte hartzeko: eztabaidak, inkestak, albisteak idatzi...

PILOTA ▶

NEREA URBIZU

Ez da batere txarra izan aste-buru hau Zazpi-Iturri Amezketako taldearentzat. Berria Txapelketan biribil ibili dira pilotariak, lor daitezkeen puntu guztiak lortu ondoren.

Hiru bikoteek, beraz, irabazi egin dituzte Intza taldearen kontrako norgehiagokak. Denora, 66 tanto egin zituzten Amezketako eskolakoek. Kadete mailan, Iraolak eta Arzelusek Intzako bikotea tanto bakar batean utzi zituzten. Ropon eta Legarreta jubenilek ere partida ona egin zuten, eta aurkariak 8 tanto egitea besterik ez zuten lortu. Azkeneko partidaren Elurbe eta Baez aritu ziren Hernanin, eta 22-14koa izan zen emaitza haien alde.

Ezin izan dituzte emaitza hobetoak lortu, beraz, Zazpi-Iturriko pilotariak. Aurrera doaz, hortaz, Berria Txapelketan, Aurrera-Saiaz eta Aurrera Leitza taldeak bezala. Leitzako taldeak 53 tanto lortu zituen 3 partidetan, Aurrera-Saiazek 65, eta Zazpi-Iturriek 66. Ez da makala eskualdeko pilotarientzat, ezta pilota jarraitzaileentzat ere. Hurrengo kanporaketan zeintzuk izango diren aurkariak laster jakingo dute hiru pilota eskolek.

Euskadiko Txapelketaz

Baina ez dira asteburu honetan jokatu diren partida guztiak hauek izan, beste bi txapelketa ere izan baitira jokoan.

Udaberriko Txapelketa izan da alde batetik, eta honetan Aurrera-Saiazek ez du zorte handirik izan: senior 1. mailako partida izan da irabazi duten bakarra, Amezketan, 22-8ko emaitzarekin. Onsalo-J. Mugika izan ziren garaile, Zazpi-Iturriko Zelaia-Leunda bikotearen aurka. Kadete 1. mailan beste bi partida jokatu zituzten Berastegin, Urnieta eta Andazpe pilota eskolakoek aurka; baina emaitzak ez ziren onak izan, 13 eta 14 tantotan gelditu baitziren, hurrenez hurren. Aretxabaletan senior mailako Telleriak eta Huartek jokatu zuten ostiraleko iluntzean, baina 22-8 bukatu zuten, gaitzen. Senior 2. mailakoan Pastrianek eta Galarragak ezin izan zituzten 12 tantoak pasatu.

Zapore gazi-gezarekin amaitu dute, beraz, pilotariak; izan ere, Aurrera-Saiazekoek larunbateko partidetatik hiru galdu eta hiru garaitu zituzten. Taldekoek aurreikusitako gogorak izango zirela arerioak, eta hala izan da. Beotibarren jokatu zituzten denak, eta 22 urte azpiko mailan Senperenak garaipen garbia lortu zuen, aurkaria 9 tantoekin utzi. Mai-

Zazpi-Iturri Berria Txapelketako puntu gehiengo lortu du

Derbia jokatu dute Zazpi-Iturri eta Aurrera-Saiazek Berastegin; Udaberriko Txapelketan, zapore gazi-geza



Aurrera-Saiaz taldekoak Urnieta pilota eskolaren aurka, kadeteen mailan, ostiralean, Berastegin. N. URBIZU

la bereko Aspe-Orbegozo bikoteak Añorgakoek kontra erraz irabazi zuten, lehiakideek 5 tanto soilik lortuz. Azkenik, elite mailan dabilen bikotea, Bellos-Oteiza, alegia, Amurrio izan zuen arerio, eta 22-12ko emaitza lorturik bikoteak beste garaipen bat gehitu du.

Zazpi-Iturri, bestalde, oso emaitza onak lortu ditu asteburu honetan, Euskadiko Txapelketan ere garaipen garbiak eskuratu baititu. Sukiak ezin izan zuten irabazi Oizpeko eskolako pilotariarekin lehiatu zenean, baina irabazitako beste guztiak garbiak izan ziren. Orokorrean esan beharra da Amezketako eskolakoek artean asteburu honetan Igor Baez, Ibai Ropon eta Unai Legarreta izan direla onenak, bi partida jokatu eta biak ere irabazi egin baitituzte.

Berastegiko derbia

Berastegin derbia ikusi ahal izan zen: kadete 1. mailan, Aurrera-Saiazeko Lasa-Lizarribar eta Zazpi-Iturriko Zelaia-Leunda bikotea izan ziren aurrez aurre. Kasu honetan garaipena Zazpi-Iturrikoentzat izan zen. Ez zen norgehiagoka interesgarriena izan, garaipena argia izan baitzen, eta partidak oso gutxi iraun zuen.

Bestalde, Amezketako Zazpi-Iturri pilota eskolako arduradunak kexu agertu dira. Hitzari azaldu diotenaren arabera, «Arzelus pilotaria Teledonosti Txapelketa jokatzekoa zen, baina beste bi txapelketatan ari zenez ezin izan zuten jokatu asteburu honetan. Data aldatzea proposatu bagenuen ere, txapelketakoek ez zuten onartu,

aldez aurretik Berria eta Euskadiko Txapelketa jokoan zirela jakinda ere». Gauzak horrela, Arzelus Teledonosti Txapelketatik kanporatu dute, «berak inolako errurik izan gabe», azpimarratu dute taldeko ordezkariak, minduta.

AMEZKETA ▶

Kantu afariko txartelak erosteko, gaur

Ostiralerako Amezketako Euskara Elkartek kantu afaria antolatu du: talde honen lehenengo ekintza sendoa da, eta bost bileratan landutakoaren emaitza izan da. Joan ahal izateko txartela erostea beharrezkoa da, eta epea gaur itxi egingo dute. Txartelak erosteko aukera Goiko lokalean, Beartzana eta Sasurain tabernetan izango da, 15 euroren truke. Afaltzeko menua entsalada mistoa, baserriko oilaskoa eta gazta tarta izango da. Ondoren kafea eta kopa banatu dute, kantuan hastearekin bateera. Kantu afarian Antton Iztueta abaltzisketarra ariko da; afaldu ostean kantuan aritzeko 30 bat kanta prestatu dituztela azaldu dute antolatzaileek. Afaria goiko lokalean izanen da, eta 20:30ean hasiko da.

AMEZKETA ▶

Talai dantza egiteko bilerarako deialdia

Amezketar talde batek Inauterietan, beste behin ere, galai dantza saioa eskaintzeko asmoa du. Inauterietako igandean eta astelehenean dantzatu dute, urtero legez, jendearen aurrean eta baserri baserri. Ostiralean elkartuko dira, 19:00etan, herriko balio anitzeko gelan, entsegu egunak eta egin beharreko guztiak zehazteko eta aipatzeko asmoz. Bilera irekia dela azaldu dute; beraz, dantzatu nahi duen oro joan daiteke hara.

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
IKAS KOMUNITATEA
PEDRO M^a OTAÑO HERRI ESKOLA
Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL
Posta elektronikoa: 012041aa@hezuntza.net

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Ibarrak erraz hartu du mendean Arnedo

6-3ko emaitzarekin garaitu zituzten ibartarrek; jubenilek porrot egin zuten, eta kadeteek garaitezkin jarraitzen dute

ERREDAKZIOA

Giro «freskoa» lagun zela, eta Belabieta kiroldegia erdiraino beteta, Ibarra areto futbol taldeak 6-3ko emaitzarekin lortu zuen garaipena larunbatean Arnedo taldearen aurka. Hala azaldu du Ibarrakoen prentsa arduradunak, Jose Manuel Tobias Romerok.

Ibarra hasieratik egin zen partidaren jabe, eta lehenengo minututik nabaritu zen hori markagailuan. 1-0eko abantaila hartu baitzuen une horretan. Unai Labakaren jokaldi eder baten ondoren iritsi zen gola Uztaritzek egindako gola. Ibarraren nagusitasuna oso agerikoa zen, eta bitartean Arnedoko taldea ezinean ari zen ibartarren erasoak gelditu ezinik.

3 minutu baino ez ziren igaro eta Ibarrak bigarrena egin zuten; Hautsi izan zen, alboko sake batetik etorritako baloia buruz erematauta baloia sare barruan sartu zuena. 2-0ekoa zen. Eta gol horretatik 10 minutu jokaldi arraro bat etorri zen; Arnedoko jokalariek batekin eskuarekin gelditu zuen baloia bere arean, eta epaileek ez zuten ezer ikusi ibartarren eta harmailetan zeuden zaleen harriurarako. Jokaldi horrek ja-

IBARRA ▶ 6

Hasierako boskotea. Igor Zabalo; Unai Labaka; David Prados; Hautsi Izagirre; Ustaritz Errondosoro.

Aldaketak. Mauro Ayerza; Lander Camio; Xabier Blanch; Jon Ander Carrera; Sinoe Sanz;

Aulkian. Mikel Sanz (ordezko atezaina); Fernando Ayerza.

rraitu egin zuten, beraz, eta kontraerasoan abiatu ziren aurkariak Ibarrakoen atera. Ondorioz, Arnedokoen Eduardo jokalariek gola egin ahal izan zuten, markagailuan distantziak laburtuz. 2-1ekoa zen. Ibarrako ordezkariak kezkuta joan ziren epaileengana, baina alferrik izan zen.

Une zailak izan ziren Ibarrakoen kontra; izan ere, Arnedok erasoari ekin zion egoeraz baliatuz. Baina Igor Zabalo atezainak geldiketa handiak egin zituen eta markagailua bere horretan geratu zen. Hala, Ibarrak berriz ere erasoari ekin zion, eta 16. minutuan Landerrek erdigunean baloia lapurtu eta Maurori pasatu zion, honek jaurtiketa zail batekin sare barrura sartzeko.

3-1ekoarekin iritsi ziren atsedendira. Lehenengo zatiko bi edo hiru minutu kenduta Ibarra izan zen nagusi emaitza argi ikusten zen bezala,

ARNEDO ▶ 3

eta zaleen artean lasaitasuna nabari zen.

Bigarren zatian, Arnedokoak indartsuago irten ziren. Hala ere, gogor saiatu baziren ere, azken unean ez zuten Igor Zabaloren atean baloirik sartu ahal izan. Ibarrakoak izan ziren 27. minutuan laugarrena egin zutenak. Unai Labakak baselina eder batekin sartu zuen baloia, eta trukean txalo zaparrada handia jaso zuen harmailetatik. Une horretatik aurrera ibartarrak zertxobait lasaitu ziren, baina golak egiten jarraitu zuten. Partida bukatu baino 4 minutu lehenago iritsi zen bigarrena Unai Labakaren hantketatik, baina talde osoak partehatu zuen jokaldi baten ondorioz. 5-1ekoa zen.

Partida erabakita bazegoen ere, Arnedinok ez zuten etsi, eta 38. minutuan bigarrena sartu zuten. Victor jokalariek egin zuten gola ibartarrek defentsan hutsegitea egin zutelari baliatuz.

Eta minutu bat beranduago hirugarrena egin zuen Arnedokoen Victor Moron jokalariek kontraeraso bat burutu eta gero. 5-3 jarri zuen markagailua. Minutu bat baino ez zen geratzen eta harmailetan urduritasuna nabari zen azken golen ondorioz. Lasaitasuna David Pradosek ibartarrentzat gola egin zuenean etorri zen. Atezain aurkariari lapurtu zion baloia Pradosek, eta sare barrura sartu ahal izan zuen atea hutsik zegoela baliatuz, Arnedo atezain-jokalariekin ari baitzen. 6-3koarekin amaitu zen partida. Aipatzekoa izan zen, Ibarrakoen aldetik, talde osoak egindako lana; baina, batez ere, Igor Zabalo atezainak egindako lan handia.

Jubenilen porrota

Bestalde, eguneko berri txarra jubenilen eskutik iritsi zen, porrota ikusi baitzuten larunbatekoan. Juan Pablo Zubelzu Txubel-ek entrenatzen dituen mutilek Oñatin jokatu zuten eta 9-7ko emaitzarekin amaitu zen Aloña Mendi eta Ibarrakoen arteko derbia. Zorte txarra izan zuten egun horretan gazteek jokaldiak ez baizitzaizkien behar bezala irten. Hurrengo partidaren garaipenaren bila joan beharko dute liderra berriz ere gertu izatea nahi badute, behintzat.

Ibarra-Uzturpe kadeteen taldeari dagokionez, garaipenak batzen jarraitzen dute. Kasu honetan, 8-2ko markagailuarekin hartu zituzten mendean Donostiako Jesuitak taldea. Horren ondorioz, sailkapeneko lehen postuan dira gaztetxoek.

IBARRA ▶

Indiari buruzko erakusketa hilaren 15a arte

Datorren asteazkena, hilaren 15a bitarte, Ibarratik Misisio Taldeak antolatutako Indiako egoerari buruzko *Calcuta: Begirada zabalik* argazki erakusketa egongo da ikusgai Benito Izagirre kultur etxean.

BERASTEGI ▶

26 urteko herritar baten hilotza aurkitu dute

Herenegun, Lozabianen aurkitu zuten Z. A. 26 urteko Berastegiko gizonezko baten hilotza. Jakinarazi dutenez, arratsalde-gau partean hil zen; Leitzatik Saldiasera doan bidean, Lozabian izeneko zonaldean, errepide ondoan, topatu zuten gorpua. Berastegiko gaztearen aldeko hileta elizkizunak atzo arratsaldean izan ziren, bere jaioterriko San Martin parroki elizan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- ### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ KULTURA

Antzezlan arrakastatsua Kultur Etxean

Erredakzioa ▶ Ostiralean jendez lepo bete zen Tolosako Kultur Etxea. Hain zuzen ere, Txalo antzerki taldearen *Erreleboa* antzezlan taularatu zuten Iker Galarza eta Joseba Usabiaga aktore tolosarrek. Soldaduska egiten ari diren bi gazteren arteko pasadizoak irudikatu zituzten. Bi soldaduak —bata Amezketakoa, eta bestea «Villafraanca de Ordiziakoa»— gardia egiten ari dira, eta elkarriketa bitxiak sortzen dira haien artean. Goraipatzekoa da saioaren ordu eta erdian atsedenek gabe hainbeste testurik antzeztea. LEIRE MONTES



LEITZA ▶ FUTBOLA

Gogorra suertatuz, liderren arteko lehia banako berdinketa

Puntu banaketa eginda, 36na dituzte orain; bitartean Baztanek bere aldetik irabazi duela, bera da lider berria

JAIONE ASTIBIA

Urduritasuna nagusi izan zen Arkixkilen igande arratsaldeko Aurreraren partiduan: asko zegoen jokoan eta horren isla izan zen zelaian ikusi zen joko gogorra ere, besteak beste.

Aurrerak 1, Gazte Berriak-ek 1, izan zen markagailuko azken emaitza; puntu banaketa, beraz. Biek 35na punturekin sailkapeneko buru ziren, eta Antsoaineko joanerako partidua banako berdineketarekin bukatu zenez, leitzarrek aurrea hartu nahi bazuten irabazi beharrean ziren; bestalde, aitaltzekoa da, Baztan ere partidu bat gehiago jokatuta baina, hortxe zegoela sailkapeneko buruko laukotean sartzeko ate joka, beste 34 punturekin. Beraz, aurrekari horiek gogoan, gauza askotxo zeuden airean eta zelaian igarri zen: gogor samar aritu ziren jokoan, batez ere antsoaindarrak, zaharxeagoak izaki, landutako jokaldirik ez zuten utzi, joko berehalaxe mozten baitzuten; askotan sarrera zakarrak eginez, zaintzaileak behin baino gehiagotan atera behar izan zuten zelaia jokalariei arreta eskaintzera: Aurrerako bi jokalarik, Iban Urriagak eta Iñigo de Karlosek, zehazki, zelaia utzi behar izan zuten min hartuta, eta taldeko iturriek atzo HITZARI aditzera eman ziotenez, hemendik bi asterako ikusiko dute sendatzen diren. Falta askoko eta ondorioz txartel asko banatutako partidua, beraz, herenegungoa.

Kontuak kontu, uneoro zale-tuen animo oihuen artean, partidua indartsu hasi zuten Aurrerakoek. Lehendabiziko une-



Behin baino gehiagotan atera ziren zaintzaileak zelaia. JAIONE ASTIBIA



Taldea 1 eta 0-koa ospatzen. J. A.

tik beretik erasoari ekin zioten eta aurkariaren zelai erdian presioa eginez, partidu hasi eta hamar minuturako sartu zuten gola; 1 eta 0 jarri ziren aurretik markagailuan, Iñaki Antolinek egindako tantoa izanik. Handik berehalaxe gogortu zuten joko zelaian berdeek, Gazte Berriak-en elastikoaren kolorea. Emaitza hura ongi zetorkion Aurrerari, baina ez besteei. Hala ere, leitzarrek ez ziren atzean ezkutatu, ahal zutela, aurrera iristen saiatu ziren. Bigarren zatian, Gazte Berriak

hasi zen erasoan, eta berdineketakoa sartu zutenean, atzean emaitza babestera sartu ziren. Hala ere, leitzarrek batez ere azken 20 minututan, sekulako presioa egin zuten, aukera franko sortu zuten, baina ez zuten baloia sareetara sartzeko asmatu, presaren presaz, batzutan.

Azkenean, beraz, puntu partitika Arkixkilen; 36narekin daude biek hala biek; eta lidergoa ez batena, eta ez bestearena, gainera, izan ere, Baztanek irabazi egin zuen Casedanoren aurka eta bera jarri da aurreneko, partidu bat gehiago jokatuta, hori bai.

Eta gazteek irabazi

Bezperan, berriz, gazteak aritu ziren futboleko zelai horretan berean, Irunberri izan zuten aurkari.

1 eta Oko emaitzarekin irabazi zuen Aurrerako jubeniletako taldeak, sailkapeneko atzeneko lekuan doan taldearen aurkakoa. Unai Tijeroren golari esker, 3 puntu eskuratu zituzten leitzarrek horrela.

LEITZA ▶ SANTA AGEDA



Santa Agedako koplak kantari ibili ziren kalez kale. HITZA

Egunez eskean ari eta gauzez kalejiran kantari

Santa Agedako koplak kantatuz herrian barrena ibili ondoren, arratsaldekoa gero

J. ASTIBIA

Larunbata egun kantaria izan zen gurean ere. Gozi eta arratsaldean ume eta gazte txokoak etxez etxe eta baserri baserri eskean ibili baziren, iluntzean adin guztietako herritarrek bildu ziren plazan, herrian barrena kalejira egiteko.

Trikitalari eta pandero-jole bikotea lagun zutela, Karrapean bertan entsegu motz bat egin zuten lehendabizi, bertan bildutakoaren artean makilak eta koplak hitzen koordizioa nola zen erabaki ondo-

ren; prestatu zirenean, herriko ataritan barrena, han hementika geldialdiak eginez ibili ziren koplak kantari hirurogei-hirurogeita hamar lagun, zapela eta brusa soinean, makilaren kolpe erritmikoaren menpe.

Hotz egiten zuen arren, ez zen inor ere kikildu eta Karrapera bueltakoan, arratsaldeko ttikia egiteko sasoirik ez zen eskatu: txistor egosi mutur bana ogitartean sartu, gazteenek freskagarria, helduenek ardo tragoskarekin eta ederki egin zioten aurre.



Trikitilariak makina bat soinu jo zuten, behatzak hoztuta ere. HITZA

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGURORK
ETXESAGASTI

Andoain. Sekulako etxebizitza, eraiki berria. 3 logela. Garaje itxia. Ikusgarri polita. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Bizitzera sartzeko prest. Trastelekua. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Egokitze

premiaduna. Balkoia. 40.000.000 pzt. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. 96 m²-ko etxebizitza. 3 logela, trastelekua eta garajea. 309.000 euro. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Logela bakarreko apartamentu txukuna. Terrazarekin. Egoera onean. 29.000.000 pzt.

Etxesagasti. 943 69 68 56.

Segura. Banakako baserria, terrenoarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Legorreta. Egoera oneko baserriak, terrenoarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Albiztur. Egoera oneko baserriak, terrenoarekin. Etxesagasti.

943 69 68 56.

Ibarra. Etxebizitza polita, moldatutakoa. Sukalde-jangela, 3 logela eta bainugela. Kanpokaldera. 41.000.000 pzt. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Txaletak. Hainbat eskualdetan, eraikuntza berriko txaletak. Etxesagasti. 943 69 68 56.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketak. Euskara Elkarrekin antolatutako kantu afarirako txartelak erosteko azken eguna da gaur. Goiko lokalean, Behartzana eta Sasurain tabernan daude salgai, 15 eurotan.
Berastegi. Podologoaren bisita izango du Gaztainondo jubilatuek elkarrekin hilaren 25ean, 09:30etik 12:15era. Ordua hartzeko elkartera jo behar da, edo 943 68 32 64 edo 943 68 32 02 telefono zenbakietara deitu.
Tolosa. Info 7 irratia proiektua aurkeztuko du Azti-begia elkarrekin. Bihar, 20:00etan, Kultur Etxean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Ana Ansorenaren zeramika lanak, Jubilatuen tabernan.
Ibarra. *Calcuta, begirada zabalik.* Hilaren 15a arte, Kultur Etxean. Ibarrik Misio Taldeak antolatuta, Calcuta Ondoan GK Eren lanari buruz.
Hernialde. Anselmo Elizalderen koadroak, Ostatu tabernan.
Tolosa. Luis Maria Nuñez margolanak. Hilaren 25a arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Txaro Medranoren artelanak. Hilaren 10a arte, Saikin tabernan.

HITZALDIAK

Tolosa. DBHko eskaintzari buruzko bilera informatiboa. Bihar, 18:00etan, Laskorain Ikastolan.

INAUTERIAK

Tolosa. Karroza eta konpartsen izen-ematea.



San Blas jaiei agur, musikak lagunduta

TOLOSA ▶ Igandean amaitu ziren Emendek Arraun Kirol Elkarrekin antolatutako San Blas auzoko jaiak. Musika doinu artean amaitu, gainera. Eguna ere halaxe hasi zuten auzotarrek: Konponezinak txarangaren dianak esnatu zituen, 09:00etan. 11:00etan, herriko hildakoen alde meza ospatu zuten ermitan. Eta, ondoren, Amaroizko dantzariak aritu ziren bai San Blasen bai

Izaskun auzoan (argazkian, Emendek elkarrekin aurrealdean, dantzan). Bazkal aurretik ere herri kirol jaialdi apartaz eta bertsoari jarraitzen jardunaz gozatzeko aukera izan zuten San Blasera joan zirenek; eta arratsaldean bigarren saioa eskaini zuten bertsoari. Etxabe Anaien trikiti doinuez esan zieten agur guztiek aurtengo jaiak. Datorren urtekoie begira. L. G.

Hilaren 10a arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Zaldunita bezperako danborradarako entseguak: hilaren 13an, 14an, 15ean eta 16an, 20:00etan, Kultur Etxean; eta hilaren 21ean, 20:15ean, Musika Eskolan.
Tolosa. Udalak Udaltzaingoen trafikolaguntzaileak kontratatuko ditu Inauteri egunetarako. Tolosan erroldatua izatea eta ikastaroak egin izana baloratuko da. Euskara azterketa egingo zaie. Izen-ematea, udalekxan, informazio bulegoan.

ZINE-KLUBA

Alegia. Bong Joo-Ho zuzendariaren *Memories of murder* filma (Hego Korea). Bihar, 21:30ean, Gaztetxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, 1. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketak, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratisaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek prestatzen duten saioa.
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
21:00-22:00. *Zaharrek berri*, Irulegi Irratiak eskaintako saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Martina Esnaola (Ugarte).
Gaur 76 urte.
Ondo pasa eta segi horrela, familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zorientzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!